

noaia



**Udal dirulaguntzak
alegazio epean**

Usurbilgo jaiak iruditan

**Saizar eta Joseba Tapia
saritu dituzte**

**Jendetza eta giro bikaina
jaien itzuleran**





FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

*EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK*

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

www.funerariagonzalez.es

begi•bistan

begi-bistan.com

**INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT
HAIN DIBERTIGARRIA IZAN**

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI



657 79 46 77
info@begi-bistan.com



**ERRESERBATU
HEMEN**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

*Ugartondon pisu berria
erosi badezu eta
lehendik zeneukan etxea
saldu edo alokatu nahi
badezu...deiguzu!*



HIGIEZINA | INMOBILIARIA
688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

Albisteak iruditan

Inoizko gaztetxo kopuru altuenarekin, abian da Udajolas

Jaietako ajeari aurre egiteko tarterik gabe ekin zitzaion uztailaren 4an NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Udalak antolatutako Udajolasi. Inoiz izandako partaide kopuru altuenarekin; 200 lagunentzako lekua zegoen aisialdi ekimen honetan eta 200 izen-emate izan genituen. Aste hasieran bildu ziren haurrak, begiraleak eta gurasoak frontoian eta inguruko plazen bueltan.

Herria girotzen

Hilabeteko aisialdi ekimenari ekiteko prest dira jada. Astelehenetik ostiralera, hilaren 29ra arte, sarritan ikusiko dituzue goiz partean, 9:30-13:30 artean herrian gora eta behera lagunartean jolasean, 4-12 urte arteko gaztetxook. Ostegunetan 16:30ak arte luzatuko da Udajolas, egun horretan irteerak egitekoak dituzte eta. Eta haiekin, ondoko argazkian duzun



Udajolasako begirale taldea, udako aisialdiko ekimena hasi aurretik.

begirale taldea. Udaberrian asteotako eskaintza mimo handiz lantzen aritu osatean, egunez eguneko eskaintza erakar-

garria plazaratzen hasiak dira, irailera arte opor giro betean izango diren gaztetxoentzat.

Laburrean

813,54ko intzidentzia

667,10tik 813,54ra igo da 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia Usurbilen. 33 covid19 kasu berri zenbatu ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak udalerrri honetan iragan aste osoan. 85 ekainean. Igoera orokorra izan da eskualdean ere.

Artile bilketa

Gipuzkoako baserritarrei zuzendua uztailaren 11n Oiartzungo udal-biltegian, 8:00-17:00 artean, Abelur, Lurgintza eta Behemendi kide duen Landaola elkar-teen antolatuta. Zerbitzu hau baliatzeko hitzordua eskatu beharko da, 627 452 397 zenbakian eta ordainketa egin.

Energia komunitatea

Energia Berriztagarrien Komunitatea eraikitzen segitzeko bilera deitu dute hilaren 7an 18:00etan Potxoenean. Fundazio gutunaren onarpena eta lantaldeen eraketa, gaiok hartuko dituzte ahotan. Informazio gehiago: udal-erregistroa/usurbil.eus/info@ebkusurbil.eus

noaua

Kultur Elkarteak
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz

Bilborako bidaian izan zen, Iurreta aldean. Autopistaren eskuin aldean leku askotan dauden panelak edo babesgarriak zeuden, autopistaz kanpoaldekoa babesteko. Eta plastikozko horma horietan grafiti koloretsuak zeuden, haundi-haundi eta ikusgarri. Begirada erakarri zidaten eta gidatzen jarraitu nuen buruan galdera bat iltzatuta: “Nola demontre margotuko zituzten grafiti horiek?” Autopistan beti dabilta kotxeak, gau eta egun, eta abiadura bizian, gainera. Grafitigileek aurrena autopistan sartu beharko zuten eta gero babesgarrietan zintzilikatu, igo edo dena delakoa egin tamaina hartako grafitiak margotzeko. Lan arriskutsua iruditu zitzaidan eta grafitigileen azalean sartzen saiatu nintzen: nola lortu ote zuten hara sartzea? Oinez ala kotxez gerturatuko ziren? Zenbat izango ziren? Lasai arituko ote ziren margotzen behar zuten denbora hartuz ala korrika eta ingurua zelatatuz? Zergatik hartzen ote dituzte arriskuko lan horiek? Zer sentitzen ote dute leku arriskutsuetan grafitiak margotzerakoan?

Handik gutxira Gasteizko alkatearen hitzak zabaldu ziren sare sozialetan. Grafitiak, artea ez, txerrikeria bat zirela esan zuen eta grafitigileen aurkako kanpaina jarri

Asmer, Fape, Roer, Jeims, Upks...



Ugaldea industrialdean Savasa zenaren hormak grafitiz beteta daude, batzuk bukatuta eta beste batzuk bukatzeke: Asmer, Fape, Roer, Jeims, Upks, Gamso...

AINHOA AZPIROTZ

“Gustura asko entzungo nuke Sutegin-edo grafitigileen solasaldi edo hitzaldi bat”

zuen martxan: grafitiak egiten dituztenei 1.500 eta 3.000 euro arteko isuna jarriko ziela esan zuen. Gorka Urtaran Gasteizko alkateak horma-irudi koloretsu eta landuak babestu zituen, eta grafiti, sinadura edo marrazki sinpleagoak mespretxatu.

Albisteak grafitiei buruzko informazioa bilatzera bultzatu ninduen. Graffiti termino latinoa grekozko graphein hitzetik dator eta idatzi edo trazu du berezko esanahia. Erromatar

inperioaren garaian zentzu artistikoa eta politikoa hartu zuen, orduan hasi baitziren leku publikoetan pintaketak egiten, profeziak, protestak edota iragarpenak eginez. Mende batzuk beranduago, aro modernoan, 1960ko hamarkadatik aurrera AEBn eta bereziki New Yorkeko auzoetan hasi ziren zabaltzen hip-hop kulturaren inguruan. Honela definitzen zuten han: “Bazterketaren edo zapalkuntzaren aurrean egiten den espresioa edo oihua da. Jabego pribatuari egiten zaion eraso da arrazoi sinple batekin: entzunarazia eta ikusarazia izatea”.

Gaur egun mundu osoan zehar zabalduta dagoen espresio artistikoa da, modu legalean zein ilegalean egindakoa.

Hormetan, tren bagoietan, etxabeetan, garaje edo tailerretako ate edo leihoetan, abandonatutako lantegietan, parkeetan... ikusten dira, denak kalean, hori baita grafitien ezaugarri nagusia. Zerbait adierazteko gogoia eta marrazkia edo sinadura egiteko materiala –normalean esprai aerosola, hori da behar den gauza bakarra.

Urbilen ere badira bat baino gehiago. Ugaldea industrialdean Savasa zenaren hormak grafitiz beteta daude, batzuk bukatuta eta beste batzuk bukatzeke: Asmer, Fape, Roer, Jeims, Upks, Gamso... Industrialde berean trenez bidaiatzen dutenek ere ikus ditzakete beste batzuk. Ingemarren ere batzuk badaude.

Artea beti da erakargarri, eta grafitiek, gustatu ala ez, badute zerbait erakargarria. Eta industrialde zaharrak eta abandonatuak koloreztatzeke eta beste itxura bat emateko gaitasuna sikiera aitortu behar zaie.

Jakin-mina sortzen dute grafitien azpian egon daitzekkeen mezuek edo esanahi ezkutuek. Gustura asko entzungo nuke Sutegin-edo grafitigileen solasaldi edo hitzaldi bat jakin-mina asetzeko, hasieran aipatutako galderak erantzuteko eta grafitigileen ikuspegia ezagutzeko.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

BONEX
REHABILITACIONES S.L.

**ERAIKINAK BIRGAITZEKO
ETA HOBEKUNTZA ENERGETIKOA
LORTZEKO SOLUZIOAK**

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teiatiuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170
Usurbil | Tlf: 625077916
info@bonex.es

**JUANTXO
BURDINDEGIA**

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Urrezko kalifikazioa Saizarrentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako 21. Sagardo Lehiaketan urrezko kalifikazioa eskuratu du Saizar sagardotegiak beste 9 sagardotegirekin batera. 18 izan dira lehiakideak eta haietatik hamarrek urrezkoa, lauk zilarrezkoa eta beste bik brontzezkoa jaso dute. Gipuzkoan %100 bertako sagarrarekin ekoiztera heltzea dute helburu; Aldundiak 300.000 euroko dirulaguntza lerroa eskaintzen segi asmo du urtero. Euskal Sagardoa jatorri-deituratik jakinarazi dutenez bestalde, “sagasti gehiago landatzen jarraituko dugu”. Ostalaritzan ere Euskal Sagardoaren presentzia areagotu nahi dute.

Brontzezko kalifikazioa (60-65 puntu): Gaztañaga eta Itxas-



Saizar sagardotegiak urrezko kalifikazioa jaso zuen unea.

**GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN SAGARDO
LEHIAKETA**

**“Urrezko kalifikazioa
eskuratu du Saizar
sagardotegiak beste 9
sagardotegirekin batera.
18 izan dira lehiakideak”**

Buru.

Zilarrezko kalifikazioa (65-72): Gurutzeta, Lizeaga, Petrategi eta Zelaia.

Urrezko kalifikazioa (72 puntutik gora): Aburuza, Akarregi, Altzueta, Alorrenea, Begiristain, Etxeberría, Isastegi, Oiharte, Saizar eta Zapiain.

Adarra Saria Joseba Tapiarentzat

Donostiako Udalaren eskutik jaso zuen Musika-ren Europako Egunean. “Saria ematerakoan, kontuan hartu dira Joseba Tapiaren ibilbide luzea, moldakortasuna (era askotako estiloetan eta musikari handi askorekin frogatu baitu bere musika-bikaintasuna), herri-musikaren ondarea kontserbatu eta zabaldu izana, eta hainbat eta hainbat pieza berri konposatu izana, bai eta akordeoiak askotariko musika-ingurune eta giroetan duen gaurkotasuna frogatu izana ere”. Marijose Rekalde eskulturgilearen garaikurra jaso zuen hitzordua, bere “Egon edo

ez egon” izeneko azken lana aurkezteko baliatu zuen Tapiak. “Eskerrik asko erraldoi bat Donostiako Victoria Eugenia antzokira hurbildu zineten guztioi! Ohorea izan zen Adarra Saria jasotzea eta guztion beroa sentitzea”, eskertu du Tapiak sare sozialen bidez.

Borrokan euskararen alde

2014an sortu zuten Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak Adarra Saria, “euskal musikaren arloan garrantzi edo eragin bereziko ibilbidea egin duen edo egiten ari den artista bati, urtero, omen egiteko”. Ordutik, Mikel Laboak, Ruper Ordorikak, Benito

Lertxundik, Fermin Muguruzak, Anarik, Berri Txarrak taldeak, Kepa Junkerak eta Amaia Zubiriak jaso dute Adarra Saria. Zerrrenda horretara batu da orain Joseba Tapia. Saritua izango zela jakindakoan, Tapiak berak adierazi zuenez, “aurretik sarituak izan diren euskal kantari horien belaunaldiko, ekipoko, taldeko sentitzen naiz. Euskal kantari profesionalak gara eta borrokan ari gara euskararen eta artearen alde. Sari hau nire izenean badator ere, nirekin ibili diren eta dabilzan musikari, teknikari eta profesional guztiekin partekatutako nahiko nuke”.

Errigoraren

laguntzarako deia

Ekainean “Nafarroan inoiz erregistratutako sute handienek 15.000 hektarea inguru kiskali dituzte”, berri eman du Errigorak. Hondamendi honi aurre egiteko “herriarraren ordua dela sinetsita”, diru-bilketa abiatu dute uztailearen 15era arte. 10.000 euroko ekarpena egin du Errigorak eta “euskal herriarrei haien ekarpena egiteko eskatu nahi diegu, nor bere ahalaren neurriara, lurra bestela kudeatuko duten proiektuak sustatzeko”. Diru ekarpenok errigora.eus bidez egin daitezke. “Izan daitezela errautesak ongarri”, desio du Errigorak.

“Bertatik Bertara”

udako kanpaina

Bisitariekin lotura duten zerbitzuen sektoreko euskararen erabilera indartzeko UEMA-k hirugarren urtez abiarazitako “Bertatik Bertara” kanpainarekin bat egin du Usurbilgo Udalak. Horretarako, bisitariarentzat zein aipatu langileentzat hainbat baliabide prestatu ditu UEMA-k; kanpainaren berri emateko erakusleihoetan itsatsi daitezkeen eskuorriak, mahai gaineoak taberna eta jatetxeetarako edota bisitariek telefonoetan erabili ahal izateko euskarazko oinarri-oinarrizko hiztegia. Baliabideok eskuratzeko deitu 943 371 999 telefono zenbakira edo idatzi itzultzailea@usurbil.eus helbidera.

Artzi
Partenarietateak
· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
© 943 362725
© 688 690 361

Kima
MASAJE LEKUA
· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Malen Lanz: “Administrazioari lotutako ikasketak amaitzen ari naiz Italian”

Ikasketak amaitzeko falta zaizkion praktikek eraman dute Malen Lanz usurbildarra Florentziara. Italiako hiri horretan hiru hilabete emango ditu administratzaileari lotutako lanak egiten. Berarekin izan da NOAUA! esperientzia horren nondik norakoak ezagutu asmoz.

NOAUA! Zertara joan zara Florentziara?

Malen Lanz: Lanbide Heziketako goi-mailako modulu bat egiten ari naiz eta bigarren urtean, azken hiruhilabete-koan praktikak egin behar izaten dira. Aukera ematen dute duala deitzen zaiona egiteko; lehen maila erdialdetik aurrera enpresan lan egin eta aldi berean, ikasketak egiten jarraitzea. Gainontzekoentzat, bigarren urteko azken hiruhileko horretara mugatzen dira praktikak eta atzerrian egiteko aukera ere eskaintzen dute. Azken aukera horri heldu nion nik, bizi esperientzia berri bat bizitzeko aukera izateko praktikak egin bitartean. Administrazioari lotutako ikasketak amaitzen ari naiz eta Italian lan horiek egiten ari naiz.

Nolakoa da Florentziako enpresa? Zer egiten dute bertan?



“Justizia Epaitegian ari naiz lanean eta bertan sortzen diren dokumentuak txukundu eta artxibatzeko ditut”.

MALEN LANZ

“Geroz eta hobeto ulertzen dugu italiara eta beraz, geroz eta errazagoa da elkar ulertu ahal izatea”

Ez dakit honi enpresa dei dakioken. Justizia Auzitegian nabil lanean. Epaiketako egiten dituzte eta bertan sortzen diren dokumentuekin lan egiten

dut. Txukunketa eta artxibaketa lana egiten dut, batez ere. Kopiak atera, zigiluak jarri eta karpetak osatzen aritzen naiz egunerokoan.

Florentzian italieraz mintzo dira. Ingelese edo gaztelaraz aritzen zara bertan? Edo italieraz hitz egiten al duzu?

Hasiera batean esan ziguten ingelesez moldatu beharko genuela, baina iritsi bezain laster konturatu ginen inork ez duela

ingelesez egiten. Dakitenek ere oso gutxi dakite eta komunikazioa nahiko zaila da hizkuntza horretan. Lehen egunak nahiko gogorrak izan ziren arazo horientatik, baina orain ingelesa eta gaztelaren arteko zerbait eginez moldatzen gara. Geroz eta hobeto ulertzen dugu italiara eta beraz, geroz eta errazagoa da elkar ulertu ahal izatea. Esaldi batzuk egiteko gai naiz italieraz, eta ahal dugun bezala moldatzen gara.

“Harroputz puntu hori badute italiar batzuk”

NOAUA! Gaztelaren gertuko hizkuntza da italiara. Erraz ulertzeko modukoa al da?

Malen Lanz: Uste baino ezberdinagoak dira bi hizkuntzak. Berez ez dira horren ezberdinak, baina oso azkar eta ahoskera bereziarekin hitz egiten dute. Oso azkar hitz egitean frantsesaren tankera

hartzen genion gaztelaren baina gehiago. Gaztelera eta frantsesaren arteko nahasketa moduko bat nolabait. Elkarriketen nondik norakoak jarraitzeko ez da horren zaila behin pixka bat ohitu ostean.

Hizkuntzaz gain, italiarren izaera eta gurea oso antzekoak direla esaten dute.

Denetarik italiarrak ezagutu ditugu. Oro har, oso harro daude italiarrak izateaz eta atzerriarrak ez dituzte oso ondo hartzen. Mespretxuzko begiradak jaso ditugu, zehar begiratuak eta goitik beherakoak ere bai. Harroputz puntu hori badute batzuek. Jakina, italiar guztiak ez dira berdinak eta oso jende jatorra ere badago.

Ordutegi oso ezberdinak dituzte. Guri lo ugari egin eta poteoa luzatzea gustatzen zaigu. Berandu egiten dugu egunerokoa, eta italiarrak berriz, dena goiz egiten dute. Frantsesen gisakoak dira zentzu horretan. Kalera ateraz gero, arratsaldeko seiatarako terrazetan jendea afaltzen egoten da.

“Zubietako eskolatik etorritako bostak elkarrekin bizi gara”

NOAUA! Italia oso ezaguna da gastronomiaren arloan pasta, pizza eta antzeko jakiak direla medio. Oso ezberdinak dira hemen jaten ditugun produktu horiek bertan jaten dituztenekin alderatuta?

Malen Lanz: Gu ez gara gehiegi joan jatetxeetara, baina joan garenetan nabaritu dugu jaki hobeak direla edo puntu naturalago edo berezkoago bat badutela. Gai honi buruz hizketan aritu ginen pisukideak aurrekoan, eta denok nabaritu duguna da saltsak egitean edota pizzaren oinarrian jartzen den tomatea naturalagoa dela. Ura eta tomatea baino ez duela sumatzen da, eta asko jota gatza eta olioia. Zaporearekin gehiago jokatzen dute guk baino, beti zapore naturalak hautatuz. Guk supermerkatuan erosten ditugun pizzak adibidez denetarik gehigarriak izaten dituzte, eta hori zaporean atzeman egiten da.

Atzerrira joan eta asko euskaldun zein espainiarrekin elkartzen dira. Zure kasuan ere hala izan da edo mundu zabaleko jendearekin igarotzen duzu denbora?

Bost ezagun etorri ginen etxetik hona. Lagun batek Donostiako zentro batean ikasten du, eta



“Gu ez gara gehiegi joan jatetxeetara, baina joan garenetan nabaritu dugu jakiak hobeak direla hemen”.

MALEN LANZ

“Gure esperientzia eta unibertsitatean erasmus egiten dutenena ez da gauza bera. Gu goizean lanera joaten gara eta arratsaldean itzuli”

haren lagun batzuk ere hona zetozenez, kuadrila ederra elkartu gara. Gure esperientzia

eta unibertsitatean erasmus egiten dutenena ez da gauza bera. Gu goizean lanera joaten gara eta arratsaldean itzuli. Gazteak ezagutzeko ez daukagu horrenbeste aukera unibertsitatekoekin alderatuz. Gu ez gara klasera joaten, eta beraz, gure adineko jendea ez ezagutzeaz gain, bertako lankide batzuk baino ez ditugu ezagutzen. Oso inguru mugatua daukagu.

Donostian ikasi duten horiekin elkartzeko aukera izan dugu ia kasualitatez, eta hortik kanpo inor gutxiarekin harremantzeko aukera izan dugu.

Bost lagunak pisu batean bizi zarete, beraz.

Bai, Zubietako eskolatik etorritako bostak elkarrekin bizi gara. Pisu bat hartu genuen, hemen, Florentzian.

“Etxera itzuli eta ikasten jarraituko dut ziurrenik”

NOAUA! Pandemia garaian tokatu zaizu esperientzia hau bizitzea. Nola dago egotera Italia aldean?

Malen Lanz: Guk ez ditugu neurriak gehiegi atzeman. Musukoa erabili behar da leku itxietan eta derrigorrezkoa da FFP2 musukoak erabiltzea garraio publikoan. Gainontzeko musukoak ez

dituzte onartzen ez direlako horren seguruak, edo hori diote behintzat. Horrez gain, Covid ziurtagiria erakutsi behar da edonora sartu ahal izateko. Euskal Herrian dauden neurrien antzekoak dira, baina zertxobait gogorragoak.

Zer botatzen duzu faltan etxetik?

Gehienbat lagunak, baina oso ondo ari naiz pasatzen hemen eta ez dut izugarrizko beharrik sentitzen.

Hemengo eguraldia ere nahikoa antzekoa da, agian etxean baino hobexegoa. Joan zen astean bero egin zuen egun gehienetan, eta Usurbilen, berriz, amak esan zidanenez euria egin zuen etengabe.

Zeintzuk dira zeure asmoak?

Printzipioz, ez daukat oraindik inolako erabakirik hartuta, baina etxera itzuliko naiz. Italian lana eskainiz gero, agian geratuko nintzateke, baina ez naiz ezer bilatzen jarri eta enpresan ere ez dinate ezer esan. Etxera itzuli eta ikasten jarraituko dut ziurrenik.

Miriam Arrillaga: “Aitarekin entrenatzea asko gustatzen zait”

Miriam Arrillagak argi zuen txikitatik. Pilotan aritu nahi zuen. “Aginagan bizi nintzenean, hiru ginen eskolan eta beti ibili izan gara pilotan, modalitate ezberdinetan”. Orriotan elkarrizketaren zati bat jaso dugu. Solasaldi osoa gure web orrialdean aurkituko duzue, noaia.eus/bereziak/hamaiakakoa izeneko atalean.

NOAUA! Txapelketa garaia izaten denean, zenbatetan entrenatzen duzu?

Miriam Arrillaga: Astean bi edo hiru entrenamendu izaten ditut. Partida noiz izango den kalkulatzeko dut eta horren arabera antolatzen ditut entrenamenduak.

Partida larunbatean bada adibidez, ostegunean deskan-tsatu egiten dut eta beste egunetan entrenatu egiten dut; bai fisikoa, bai tekniko. Bi saio fisiko egiten saiatzen naiz; bata oso gogorra eta bestea lasaia-



“Neskok profesionaltasuna eta berdintasuna eskatzen badugu, guk ere gauza bera eskaini beharra daukagu”, adierazi digu Miriam Arrillagak.

MIRIAM ARRILLAGA

“Asko sufritzen dut eskuetatik. Entrenamenduak egin eta gero kosta egiten zait partidara behar bezala iristea”

goa. Teknikoa asteazkenetan izaten da, partida prestatzeko

erabiltzen dudana: gauza berriak ikasi edota arerioari aurre nola egin ikusteko... Osagai horien arabera antolatzen ditut entrenamenduak.

Non eta norekin entrenatu ohi duzu?

Palaz aritzen garenean, talde bat daukagu Anoetan (Tolosa ondoan). Ahal dugun moduan

osatzen dugu taldea eta bertan entrenatzen dugu. Eskuz ez dut asko entrenatzen. Asko sufritzen dut eskuetatik eta kosta egiten zait astero entrenamenduak egin eta gero partidara behar bezala iristea. Entrenamendu horiek aitarekin egitea gustatzen zait. Hark laguntzen dit esanez pilota nola jarri, nola jokatu, zein izan litekeen nire teknikarik hoberena... Aitarekin konfidantza handia daukat eta berarekin entrenatzea asko gustatzen zait.

Zu ari zaren mailan aritzeko asko zaindu beharko da, ezta?

Gustatzen zait zaintzea bai jaterako orduan, bai entrenamenduak antolatzerakoan... Parranda ere gustatzen zait, baina kontrolatuta egin behar da hori ere. Neskok profesionaltasuna eta berdintasuna eskatzen badugu, guk ere profesionaltasun bera eskaini beharra daukagu.

“Nik pilota txiki-txikitatik hartu dut serio”

NOAUA! Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zure kirol jarduerak?

Miriam Arrillaga: Denbora asko eman dugu entrenatu gabe eta txapelketekiko ezjakintasun horrekin. Etxean entrenatzen nuen ahal zen moduan. Partidak jokatzeko garaian ere eragin nabarmena izan du. Askotan suertatzen zen norbait positibo zena edo gertukoa eta etxean geratu behar zuena, eta beraz, partidak bertan behera uzten zituzten. Horrek guztiak desmotibazioa eragin dit. Partida jokatu nahi nuen, berdin zitzaidan irabazi edo galdu, baina partidako tentsio hori sentitu nahi nuen.



“Txikitik, galtzen nuenetan, haserre itzultzen nintzen etxera”.

Orain pixkanaka martxa hartzen ari gara eta txapelketak itzultzen hasi dira.

Herri batzuetan ere festak itzuli dira eta festak itzultzea-

rekin batera gurekin gogoratu dira batzuk.

Noiz hasi zinen pilota serio hartzen?

Nik pilota txiki-txikitatik hartu dut serio. Aginagan bizi nintzenean, hiru ginen eskolan eta beti ibili izan gara pilotan, modalitate ezberdinetan.

Asko ‘pikatzen’ naiz. Txikitik, galtzen nuenetan, serio hartzen nuen eta etxera haserre iristen nintzen.

Igeriketan ere aritu nintzen bolada batean eta asko lagundu zidan nire gorpuzkeran; bai fisikoki eta baita teknikoki ere. Nik garbi neukan pilotarekin jarraitu nahi nuela eta igeriketa uztea lortu nuen. Pilota inoiz ez dut utzi, betidanik jokatu nahi izan dudalako.

“Guk ere zerbait egin beharko dugu, guregatik beste batzuk egin zuten bezalaxe”

NOAUA! Lehiakortasun handia dago emakumezko pilotarien artean ala, alderantziz, lagun giroan aritzen zarete?

Miriam Arrillaga: Lagun giroan. Pilotan familia bat osatu dudala esango nuke. Edozein daukat kontuan hartzea, edozertarako. Behin kantxan sartuta, lehiakortasuna izugarria da eta lagunak garela ahazten dugu. Partida irabaztera irteteten gara kantxara. Nik uste garrantzitsua dela lehiakortasun hori izatea bai guretzat, bai eta ikusleentzat ere. Irabazi nahi horrek laguntzen du, eta 22ra iristean berriz lagun izango bagara ere, kantxa barruan beti daukagu lehiakortasun hori. Frontoitik kanpo, partida jokatu ostean ere, aipatzen ditugu jokoaren nondik-norakoak, baina beti ere laguntasunetik.

Urte batzuk egin dituzu jada pilotan. Zein izan da orain arte lortu duzun balentriarik handiena eta zein da begiz jota duzun lehiaketa edo txapelketa?

Emakume Master Cup-ekoa balio handikotzat dudun txapela da. Ni atzelaria naiz eta lau eta erdikoa ez da guretzat orokorrean egokiena. Atzelariak beti gutxiago dira aurreko joko horretan. Beraz, modalitate horretan txapela irabaztea izugarria izan zen. Lagun baten aurka jokatu nuen eta sekula lortuko ez nuen zerbait lortu nuela iruditzen zitzaidan. Miren Larrarte pilotari onenarikotzat daukat eta txapelketa hura irabaztea gauza handia izan zen niretzat.

Orain Frontball modalitate-ra hurbiltzen ari naiz. Iazko urrian Europako txapelketa irabaztea lortu nuen, munduko txapeldun bati irabazita. Balio



Miriam Arrillaga Belokik Frontballeko Europako Txapelketa irabazi zuen iaz. Okzitaniako Tolosan jokatu zen finala.

MIRIAM ARRILLAGA

“Emakumeen profesionalizazioa urrun ikusten dut oraindik. Pauso handi bat eman dugu azkenaldian eta bide horretan telebistak eta komunikabideek asko lagundu digute, ikusgarritasuna ematen”

handia ematen diot garaipen horri. Lehenengo aldiz joan eta munduko txapeldun bati irabaztea amets bat betetzearen parekoa izan zen niretzat. Konfidantza handia eman zidan horrek. Oso ondo eta oso lasai

jokatu nuen, eta orain munduko txapelketa batzuk daude eta horiek dauzkate begiz jota. Exijentzia maila handiko txapelketa da ikuspuntu tekniko zein fisikotik, eta udan asko zaindu beharko dut txapelketa horretara iristeko. Amets hori bizi nahi dut eta ahalik eta azkarren. Aurtengo helburu bakarra hori dela esango nuke.

Emakumezko pilotari bat profesional izatera iritsi al daiteke?

Emakumeen profesionaltasuna oraindik urrun ikusten dut. Orain pauso handi bat eman dugu. Horretan telebis-

tak eta komunikabideek asko lagundu digute, ikusgarritasuna ematen, baina profesionaltasuna lortzeko oraindik pauso asko eman behar dira. Gehiago prestatu behar da ikuspuntu tekniko zein fisikotik. Eskuak zaintzen ikasi behar da, takoak ondo egiten ikasi behar da... Oraindik gauza asko daude profesionaltasunera iristeko.

Ni beti hor egongo naiz ahalik eta pauso gehien ematen eta atzetik ere pilotari asko datoz. Horiengatik ere guk zerbait egin beharko dugu, guregatik beste batzuek egin zuten bezalaxe. Datozenak profesional egiten badira, ea guri ere balioa ematen diguten.

Profesionalak ez garenez, ikasketak egin beharko ditugu. Ni kirolari lotutako goi-mailako ziklo bat egiten ari naiz, eta bitartean lanean ari naiz neskak eta mutilak eskuz zein palaz entrenatzen. Kirola nire egunerokotasuna da. Orain pilota da bide hori osatzen duena, baina berdin zait zein kirol egin. Kirola egiten dudanean, gustura sentitzen naiz, laguntasun baten parte naiz. Beti egongo naiz kirolari lotuta.

Laburrean

“Kirolari bat? Abel Barriola”

1. Zenbaki bat.
1.

2. Kolore bat.
Urdina.

3. Kirolari bat.
Abel Barriola.

4. Frontoi bat hautatu ezazu.
Aginagakoa.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
‘Pulseras rojas’.

6. Liburu bat.
‘El éxito es un juego’.

7. Abesti bat.
Sutondoko kantuak (Zetak).

8. Sare sozial bat.
Instagram.

9. Usurbilgo txoko kuttunena zein duzu?

Pilotan aritzeko pareta daukan edozein.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?

Sagardo Eguna.

11. Oporretarako toki bat?
Menorca.

Txoko anitz blaitu dituzte festek




Potxoenea izkinatik hasita Askatasuna plaza, frontoia, Artzabal, Dema eta Mikel Laboa plazak... herri erdigunea hartu dute jaiek bost egunez.

Kontzertu gau jendetsuak



Egunez ere bai noski, baina gauez jendetza batu dute Bertsio Gau eta kontzertuek. Giro ezin ederragoa bizi izan da. Irudiak: Ibai Arrieta.

Iragarritakoa baino giro hobea



Ekitaldiren bat edo beste salbu, ateri ertsio dio ospakizun gehienetan. Uda giro beteko egunik ere izan da festetan.

Dantza batean jarri gaituzte jaiek



Jaietako hainbat ekitaldiek dantzan jarri dute herria; Orbeldikoen emanaldia edota soka-dantza horren lekuko.

Festek gogotik suspertu dute kale giroa



Buruhandiek, haurren jolasek, kalejirek, oilasko biltzaileek... Bost eguneko kale giro ezin biziagoa izan dugu Usurbilen.

Kalejiran nahiz jolasean bost egunez



Haurren, gazteen nahiz helduen topagune izan dira Usurbilgo jaiak. Amaitu berri diren festetako argazki gehiago noaua.eus atarian.

Jaietako “familia” argazkiak



Oilasko biltzaileak, soka-dantzakoak, gazte mugimendua... Jaietan ateratako talde argazkiak orrialde honetan. Zikiro-janeko argazkiak: Xingolari.

Odol-emaileak: “Zuek zarete biziak salbatzen laguntzaile”

Euripean, baina euriak jai giroa zapuztu gabe eman zieten hasiera Santixabelei, ekainaren 29ko txupinazo ekitaldiarekin. “Oso pozik gaude”, adierazi zuten omenduek, Usurbilgo odol-emaileen elkartetik. Pozik zirela jaiei hasiera emateko eskainitako aukeragatik. Gogoan hartu nahi izan zituzten bilgune honen mende Erdiko ibilbideari hasiera eman ziotenak. “Denak ez daude hemen”, baina “batzuk bai” zioen Agustina Aristik; tartean Miren eta Agate Errekondo. “Jarraipena eman diezaiogun haiek hasitako bideari”, luzatu zien gonbita udaletxe aurreko plazara joandakoei.

Emailleak ere biziki gogoan hartu nahi izan zituzten. “Zuek gabe gure lanak ez du zentzurik”, eskertu zieten. “Zuek zarete biziak salbatzen laguntzaile”, gogorarazi zieten. “Ajeak botata” datorren odol-emate saiora hitzartu gaituzte; uztailaren 11n izango da.

“10 minutu baino ez dira”

“Ospatu eta gozatu ditzagun. Gora Santixabelak eta gora usurbildarrak!”, esanez txalo artean piztu zuten jaiei hasiera eman zien suziria odol-emaileen elkarteko kideek. Aurretik, hitza hartzen lehena Usurbilgo alka-



European baina gogotsu ekin zieten jaiei udaletxeko balkoitik.

USURBILGO ALKATEA “Denok garenez hartzaile potentzialak, denok izan beharko genuke emaille errealak”

te Agurtzane Solaberrieta izan zen. Odol-emaileen elkartekoen lan isila goraiatu zuen. “Urte luzeetan egindako lan isil baina ezinbestekoa” tarteko, “ondo merezitako omenaldia” dela nabarmendu zuen. Bere esanetan, “seguru naiz ez dagoela munduan hau baino ekintza solida-

rioagorik eta eraginkorragorik, izan ere odol-emate bakoitza hiru bizitza gehiago dira”. Hortik, eskertza “hainbeste emateagatik, zuek bezalako odol-emaileengatik bizi baitira asko. Bizi gaitzezke asko”. Ezin jakin ea noizbait besteen odola beharko dugun bizitzen jarraitu ahal izateko. “Horregatik, denok garenez hartzaile potentzialak, denok izan beharko genuke emaille errealak”. Emaille izateko gonbita luzatu zuen alkatea. “10 minutu baino ez dira, mundu hobeago, solidarioago eta osasuntsuago baten alde ezinbesteko ekarpen txiki erraldoia. Jarrai dezagun beraz elkar zaintzen”.

Kultur Bira gogoan

Gainerakoan, jaien merezitako itzulera hartu zuen gogoan alkateak, eta osasun krisialdia tarteko, bizitako “hilabete zail eta gogorrak”. Jaiez ari garela, une zailenetan segurtasunez “kulturaraz gozatzeko aukera eman digun Kultur Birako” antolatzaileak eskertu nahi izan zituen alkateak. Ekimenak sustatuko herri eragileen arteko lankidetzak. “Gu denon osasuna babesteko eta elkar zaintzeko ekimen komuni-

tario bikaina izan zen, bejondeizuela!”, txalotu zuen.

“Herritik eta herriarentzat!”

Eta haiekin batera, azken hila-beteotan Jai Batzordeak eginiko lana ere goraiatu zuen noski; herritarrak, udal ordezkari eta teknikariak, taldeak, gurasoak, gazteak, jubilatutako... “Egitarau bikaina osatu duzue, herritik eta herriarentzat!”. Eskertza baita Dema plaza girlandez apaintze-

ko elkarlanean aritu diren Uda-rreri Ikastolakoei eta jubilatutako elkartei. “Ekimena bikaina izan da, belaunaldi arteko lankidetzak, kultura eta ingurumenaren zaintza barnebiltzen ditu egitasmo honek, herri kontzientzia eta jaiak uztarri berean”.

Hastera zihoazen jaietan guztiok festez “askatasunez eta berdintasunez gozatzeko eskubidea” aldarrikatu zuen Solaberrietak.

Gazte mugimendua bat eginik jaietan

Usurbilgo gazte mugimendua erakusleihoa izan nahi zuen jaiak hasteko Mikel Laboa plazako txosnagunean iragarria zuten gazte txupinazoak. Plazaraturikoa, mugimendu kohesionatu eta batua izan zen, hitzorduarekin bat egin baitzuten herriko lau gazte eragileek; Kafetertulia Usurbilgo neska* gazteen talde feministak, Usurbilgo Ernaik, Aztarrika Gazte Asanbladak eta Xauxar Txozna Batzordeak. Dantza batean, Euskal Herriko txoko ezberdinetan errotuak dauden ohiturei keinu eginez, jendea festa girora xaxatuz agertu ziren Mikel Laboa plazan, hitzordurako egoki asko jantzita. Zapalkuntzen aurrean askatasunerako borroka dela bide bakarra nabarmenduz, eta euskara iparrorratz dutela argi utziz. “Euskara ez dakigu nondik datorren, baina dakiguna da hizkuntza bat dagoen unetik, herri bat dagoela atzean. Beraz, hizkuntza galtzen badugu, herria galduko dugu”, ohartarazi zuten gazte mugimenduko ordezkariak. Eta hizkuntza, herria ez galtzeko, ezinbestekotzat jotzen dute “herri bizi eta alai bat izatea”. Eta hala bada, herrikideengatik dela goraiatu zuten. “Zuei esker da Usurbil herri alai eta bizi, baina hau ez da hemen geratzen”, iragarri dute.

“Zutik gauden gazteria”

Bizi ahal izateko etengabe borrokatu beharraz nazkatuta daudela adierazi arren, “bizitzeko borrokatu behar badugu, borrokak jarraituko du”, iragarri zuten, “zapalduak garelako baina ez gairaituak! Zutik gauden gazteria garelako”. Elkarlanean aritzeko unea dela gogorazita, eskerrak eman zizkieten “herria bizirik mantentzen duten eragileei”. Topa eginez, jaiak libreki gozatzeko gonbita luzatu zuten.

Usurbildar kirolarien plazaratze ikusgarria, laguntasuna gailendu zitzaion lehiari



Trontzan, txingetan, korrika, aizkora... lehiatu ziren usurbildarrak. Kirol ikuskizun bikaina plazaratu zuten.



Harri-jasotze saioan gogor lehiatu ziren Ane Zinkunegi eta asteburuan Aian Emakumezkoen Lau Arroa txapelketa irabazi duen Lur Errekondo.

Bete-betean asmatu dute jaietako eskaintza berri honekin. Usurbildarren arteko lehiak gozatzeko aukera izan da aurtengo Santixabeletan. Norgehiagoka ikusgarria eskaini zuten herriko kirolariek uztailaren lehenean. Gogotik saiatu ziren, lehia bizia izan zen. Eta emaitza ezinhobeia; lehiakideen arteko laguntasuna eta herria txapeldun!

Egin beharreko lanak

USURBILDARRAK HERRI-KIROLETAN

"Norgehiagoka ikusgarria eskaini zuten herriko kirolariek"

Sei aldiz:

- Harri-jasotzea: 8 altxaldi.
- Giza proba: lau zinta.
- Aizkora: sei mozketa erdi.
- Txingak: lau zinta.

■ Trontza: bi mozketa.

■ Korrika: hiru itzuli plazari.

Talde gorriko partaideak

■ Lur Errekondo, harri-jasotzen.

■ Iurgi Mendiluze, giza proban.

■ Jon Esnal, aizkolari proban.

■ Iñaki Portularrume, txinga proban.

■ Irati eta Haritz Holgado, trontzan.

■ Iñaki Añorga, korrika.

Talde urdineko partaideak

■ Ane Zinkunegi, harri-jasotzen.

■ Gabi Sarasola, giza proban.

■ Haritz Esnal, aizkolari proban.

■ Ibai Orena, txinga proban.

■ Julen Uli eta Beñat Bereziartua, trontzan.

■ Borja Pulido, korrika.

Epaileak

■ Mikel Arrillaga eta Imanol Vitorica.

Aztarricup eta museko finalistak



Jaletako mus txapelketako sailkapena: 1. Pako eta Pablo / 2. Aranburu eta Aranburu / 3. Aitor eta Juantxo / 4. Zuhaitz eta Unax.



Udaberriko asteburuetan frontoian ospatu den Aztarricup txapelketa jendetsuko sariak banatzeko baliatu zuten Gazte Eguneako bazkaria.

Udaberri partean jokatu diren lehia biziko txapelketen finalak jaietan

Esku-pilota eta pala txapelketen finalak jokatu dira amaitu berri diren jaietan. Infantil eta senior mailetako esku-pilota txapelketako finalak uztailaren 2an ospatu ziren. Lehenago, ekainaren 29an palakoak. Pala egokituko partidarekin ekin zioten arratsaldeari. Beñat Lizaso eta Manu Quesada bikoteak hasieratik alde handia atera zieten markagailuan lehiakideei, 1-6ko partzialarekin, baina pixkanaka gorriak hurbildu egin zitzaizkien partidaren amaierarako. 24-24 markagailuan eta azkenean, partidaren nagusi izan zen Lizaso-Quesada bikotea gailendu zen. Binakako final handian, markagailua ez zen horren estu ibili, eta hasieratik bikote urdina nagusitu zen. Gorriek gogor eutsi zieten, baina ezin izan zuten zuloa berdindu. Azkenean, 12-22. Agirretxek eta Lorenzok osatutako talde urdina gailendu zen.

Pilota Txapelketa

Infantilak

■ Pagazpe (Ekhi Osés-Enaitz Errasti) 18-14 Azkoitia (Eñaut Aldazabal-Urtzi Segurola)

Seniorrak

■ Pagazpe (Sancho-Urruzola) 8-22 Errenteria (Astiz-Aranguren)

Zozketa

■ Ander Orenak irabazi du Patrín bi lagunentzako afaria eta urdaiazpiko ederra, berriz, Hernaniko Esterrek.

Pala Txapelketa

Kirol egokitua

■ German Elkorro-Asier Navaridas 24-25 Beñat Lizaso-Manu Quesada

Binakako finala

■ Antton Errekondo-Imanol Galarraga 12-22 Imanol Agirretxe-Beñat Lorenzo



Pilota txapelketako finalisten taldea, bai infantil mailan baita seniorretan ere. Uztailaren 2an jokatu ziren bi neurketetan parte hartu zuen Pagazpe; bat irabazi eta bestea galdu zuen.



Ekainaren 29an ospaturiko pala egokituko neurketako sari banaketa irudi honetan. Beñat Lizaso usurbildarra kide zuen bikotea nagusitu zen.



Jaien aurreko asteetan frontoian jokatu den pala txapelketako finalisten taldea, ekainaren 29rako azken partidaren osteko sari banaketa ekitaldian.

Hamabi dirulaguntza lerroen ebazpenak kaleratu ditu Usurbilgo Udalak

Hamabi udal dirulaguntza lerroen ebazpenak dira kaleratu dituztenak. Ebazpenok behin-behinekoak dira. Uztailaren 14ra arte alegazio epean izango dira.

Ohiko kirol egitasmoetarako

- Aurkezturiko eskaerak: 9.
- Banatutako laguntza: 50.000 euro.

Kirol egokituko jardueretarako

- Aurkezturiko eskaerak: 1.
- Banatutako laguntza: 3.000 euro.

Kirol elkartenak ez diren kirol jardueretarako

- Aurkezturiko eskaerak: 5.
- Banatutako laguntza: 999,36 euro.

Igogailuak instalatzeko

- Aurkezturiko eskaerak: 11.
- Banatutako laguntza: 9.999,97 euro.

Etxebizitzaren alokairurako

- Aurkezturiko eskaerak: 5.
- Banatutako laguntza: 3.500 euro.

Ingurumeneko dirulaguntzak

- Aurkezturiko eskaerak: 10.

Nekazaritza eta abeltzaintzako dirulaguntzak

- Aurkezturiko eskaerak: 11.
- Banatutako laguntza: 12.772,46 euro.

Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tra-



Behin-behinekoak dira Udalak argitara emandako ebazpenak.

UDAL DIRULAGUNTZEN EBAZPENAK

“Uztailaren 14ra arte alegazio epean izango dira”

tamenduetarako dirulaguntzak

- Aurkezturiko eskaerak: 1.
- Banatutako laguntza: 144 euro.

Gizarte zerbitzuen arloko egitasmoetarako

- Aurkezturiko eskaerak: 15.
- Banatutako laguntza: 12.000 euro.

Kultur sorkuntzarako

- Aurkezturiko eskaerak: 10.
- Banatutako laguntza: 12.000 euro.

Kultur egitasmoetarako

- Aurkezturiko eskaerak: 19 talde aurkeztu dira.
- Banatutako laguntza: 64.515,08 euro 18 talderen 83 ekintzentzat.

Deserrotze eta baztertze sozia-

leko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko dirulaguntzak

- Aurkezturiko eskaerak: 0.
- Banatutako laguntza: 0 euro.

■ Informazio gehiago: ekainaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Euskara eta aisialdiko dirulaguntzak

Uztailaren 8ra arte aurkeztu ahalko dira eskabideak usurbil.eus atarian edo udal erregistroan, bi alor hauetan 2021-22 ikasturtean ikastaroak egin dituztenek. Eusko Jaurlaritzak homologaturiko aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskara egin dituztenek matrikularen %50a diruz laguntzen du Udalak (250 euroko laguntza gehienez). Euskara ikasten aritu direnek aldez, matrikula kostuaren %100a diruz laguntzen du Udalak. Horretarako, Usurbilen errolatua egon eta %80ko asistentzia egiaztatu behar da.

Aranerrekako parke eraberrituko bidea

Oinezkoak lehenetsiko ditu Aranerrekako parke eraberrituak. Ibilgailuentzako itxia egongo da, soilik “baimendutakoek baino ezingo dute pasa”, ohartarazi du Usurbilgo Udalak, “Agerreazpiko bidetik”. Hala izango dela bermatzeko, “oraingoz, harriak jarri ditugu; errespetatuko ez balira, beste elementuren bat jarriko genuke, irisgarritasuna bermatuz”. Itxuraz edertzen doa eremu hau. Elementu berriei hornitzen jarraitzen dute. “Esertzeko hainbat banku, zakurren gorotzak biltzeko zakarrontzia eta gurgildun aukientzat ere irisgarria den mahaia” kokatu dituzte.

Biribilgunea Bugatin

Orain arte N-1 errepidea gaitetik zeharkatzeko zubi batek lotzen zuen Lasarte-Oria eta Zubietako Bugati aldetik. Etorkizunean aipatu errepide gainera biribilgune batek zeharkatuko du. Hala berri eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak. “Biribilgune goratu berriak 8.989.292,30 euroko oinarritzko prezioa izango du eta zortzi hilabeteko epea”. Lanak udazkenean hasiko dituztela iragarri dute. Lan hauetan, “egungo gainera pasabidea eraitsi egingo da, eta gainera bi pasabide sortuko dira, biribilgunea 45 metroko luzerarekin osatuko dutenak». Gaineratu dutenez, “behin biribilgunea eginda, N-1 errepidetik Lasarte-Oriarako noranzkoan dagoen egungo irteera lotune horretara eramango da”.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· karta · oilasko erreak, hamburgerak..
paellak enkarguz!
619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziakoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo

gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jatebtxean. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatebtxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan

bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. Interesatuak: 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharbertitzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo aste-bukaerak interna moduan aritzeko prestasuna daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. Harremanetarako: 695 184179 / ane-

seoane@gmail.com

Hotel, jatebtxe, soziedade edo etxetako garbiketarako lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galduta dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

24 hazbeteko telebista berria salgai. Erabili gabea. 646 185 716.

**Zorionak Inhar!**

Urtebete egin duzu irribarreak eta poza banatzen, beti sinpatiko eta beti alai. Askok maite zaitugu, muxu karrokada bat zure familiaren partez!

Izen-ematea online, Usurbil Kirol Elkartean

Datorren 2022-23 denboraldirako izen-ematea online bideratzea erabaki du Usurbil Kirol Elkartek, "zuentzat erosoagoa izango delakoan", aipatu elkartetik berri eman dutenez. Epea zabalik dute jada uztailaren 18ra arte. "Animatu! Zuen izen emateak jasotzeko irrikitan gaudel". Jada jokalariek direnek "zuzenean jasoko duzue izen-emate formularioa". Eskubaloia jokatzera itzuli asmo dutenek edota estreinakoz kirol jarduera honetan aritu nahi dutenek lotura honetan klikatuta eskuratu ahaliko dute formularioa: <https://forms.gle/eZUpqdQv2aiEVcPc6>

Heriotzak

Patxi Carollo

Álvarez

Ekainaren 30ean

hil zen

78 urterekin

**Heriotzak**

Josefa Pérez

Castillo

Uztailaren 1ean

hil zen

88 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 08 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 10 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 11 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 12 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 13 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Osteguna 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 17 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda uztaila

07 osteguna

- **Jakin Jardunaldia: "EH2040: demografia, zaintza eta hizkuntza".** 09:00-17:00 artean. Antolatzaileak: UEU, Jakin eta Usurbilgo Udala.
- **Energia Berriztagarrien Komunitatea osatzeko bilera.** 18:00etan Potxoenean.

08 ostirala

- **Jakin Jardunaldia: "EH2040: demografia, zaintza eta hizkuntza".** 9:00-13:00 artean. Antolatzaileak: UEU, Jakin eta Usurbilgo Udala.
- **"Fruitu arbolen udako edo begiko txer-taketa" ikastaroa.** 15:30ean Potxoenean.

09 larunbata

Jakin Jardunaldia egunotan

UEU-ren 50. udako ikastaroen baitan, "EH2040: demografia, zaintza eta hizkuntza" izeneko Jakin Jardunaldia ospatuko da egunotan Usurbilen. Honatz datozen adituek eskainiko dituzten saioen egitaraua:

Uztailak 7, osteguna

- 08:45-09:00 Harrera eta dokumentazio banaketa.
- 09:00-09:30 Ongi etorria eta jardunaldiaren aurkezpena:
- Agurtzane Solaberrieta, Usurbilgo alka-tea.
- Kepa Sarasola, UEUko lehendakaria.
- Lorea Agirre, Jakin-eko zuzendaria.
- 09:30-10:30 H2040: zer dio prospektibak? Imanol Esnaola, Demografian aditua, Gaindegia-ko kidea.
- 10:30-11:00 Atsedendaldia.
- 11:00-11:45 Hitzaldia: Marta Luxan, EHUKo Soziologia irakaslea eta doktorea antropologian.
- 11:45-12:30 Hitzaldia: Felix Arrieta, Soziologia irakaslea Deustuko Unibertsitatean. Zaintza politikitak aditua.
- 12:30-13:15 Denen arteko elkarriketa eta eztabaida saioa.
- 13:30-15:00 Bazkaria.
- 15:00-15:45 Hitzaldia: Jule Goikoetxea, Politologoa eta filosofoa. EHUKo irakasle



UEU, Udala eta Jakin aritu dira jardunaldion bueltan lankidetzan.

eta doktorea.

- 15:45-17:00 Usurbilgo Zaintza Ekosistema egitasmoa: Erkuden Aldaz eta Maider Azurmendi, egitasmoaren bideratzaileak.artinez).

Uztailak 8, ostirala

- 09:30-10:15 Hitzaldia: Gari Goikoe-txea, Kazetaria. UEMAKo teknikaria.
- 10:15-11:00 Hitzaldia: Itsaso Olaizola, soziologoa.
- 11:00-11:30 Atsedendaldia.
- 11:30-12:15 Denen arteko elkarriketa eta eztabaida saioa.
- 12:30-13:00 Ondorioak eta sagardoarekin topa.

Antolatzaileak:

UEU, Jakin eta Usurbilgo Udala.

Datozenak

'Sagarrondotik

Sagardora' ikastaroa

"Fruitu arbolen udako edo begiko txer-taketa" saioa antolatu du Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatibak uztailaren 8an, 15:30-18:30 artean Potxoenean, Josu Osaren eskutik, Sagarrondotik Sagardora zikloaren baitan. Kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo direla ohartarazi dute. Izena usurbilkultura.eus edo alkartasuna.eus atarian eman daiteke.

Odol ematea

Usurbilgo jaiak tarteko, lehenengoan ez, uztailako bigarren astelehenerako iragarri du Santixabeletan omendu duten Odol-Emileen Elkartek, datorren emate saioa. Uztailaren 11n, aldaketarik ez bada, 16:30etan hasita Udarregi Ikastolan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

KzGuneko ikastaroak

Oinarrizko Internetari buruzko ikastaroa martxan izango dute hilaren 14ra arte KzGunean; "Ofimatika Tresnak" izeneko uztailaren 15etik 29ra, 16:00-18:00 artean. Informazio gehiago: 943 023 684/tutor.usurbil@kzgunea.net/Kale Nagusia, 37.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaia.eus

ERAMATEKO!!!

EGUNEKO MENUA
KARTA

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

(ESKANEATU QR
KODEA IKUSTEKO)



www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

noauva

jarraitu gure sare sozialak



www.noaqua.eus

Edertu zaitez!

INDIBA
DEEP BEAUTY
PROGIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

• ZELLULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELLULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Enar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROESTETIKA • ZIMUNTZERAPIA
munalurra 2, USURBIL 943 571680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96



**secretos™
del agua**

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

osasungarriak eta
kimikarik gabe

Egurdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

**GOLDWELL
ELUMEN**

9.00etatik 19.00etara zabalik

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

mistoa

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951